

Unai Goikoetxea Nazabal

B maila • 1 aipamena

16 urte ditut eta ataundarra naiz. Lehen urratsak Ataungo Joxemiel Barandiaran herri eskolan eman nituen eta bigarren hezkuntza egitera Lazkaoko San Benito ikastolara etorri nintzen. Pilotaria naiz eta bertso zale amorratutzat daukat nire burua, geroz eta gehiago gainera. Nahiz eta sekula ez naizen bertso eskolara joan, txikitatik entzun eta idatzi izan ditut bertsoak. Horrez gain, txirrindularitza ere barru barrutik bizi dut, ikaragarri gustatzen zait.



BASERRIA, NIRE BASERRIA

Zenbat denbora ta zenbat kontu
pasa ote dugu bertan?
Askotan sukaldean egonez
eta lanean bestetan
ustez jadanik bazen garaia
ni hasteko gogoetan
ta pentsatuz jarri beharko naiz
momentu eder haietan

Ikuilura joaten ginanean
han izaten genun festa
aurrena guzti-guztia nastu
gero osabai galdezka
berak harridurakin beidatuz
zer zabiltzate barrezka?
txikitan ez genuen izaten
gaur egun adina kezka

Amona leihotikan begira
egoten zen zelatatzen
Gu animalari artean berriz
lanean ta zirikatzen
Jana eman eta azpiak egin
ederki genun pasatzen
ahal genuen heinean behintzat
gure laguntza ematen

Amonak zenbat maite gaituen
ezin liteke kalkula
Duela gutxi arte joan da
Baratza ta ikuilura
Orain jadanik ez da lehengo
baserritar gazte hura
baina jakin dezala ondoan
beti eukiko gaitula

Gure aitona aipatu gabe
ezingo nuke nik laga
Jakín nire irakaspen asko
Zugandik jasok dirala
Gure ondotik joan zinela
denbora nahikoa bada
Baina gogora ezazu ongi
Asko maite zaitudala

Bertan momentu on eta txarrak
denok ditugu pasatu
hala ere gauza gozoekin
dezente dugu gozatu
Kezka bat badut neure buruan
jira ta bira jo ta su
baserri mundu honek gerora
zutik jarraituko al du?